



lauaxeta
1905-2005

berria

Larunbata, 2005eko ekainaren 25a

Maitale kutuna

Olerti Eguneke lehen saria irabazi zuen poema honekin Lauaxetak, Erreterian. *Bide-barriak* liburuan sartu zuen gero. Oraindik grabatu gabe, Antton Valverde osatua du poema honetan oinarritutako kantua. Hemen, leku faltaz, bost ahapaldi utzi ditugu kanpoan.

*Iñoi ikusi bako maitale kutuna
neure opa samurrok lastanduten dabe.
Begi gelgarritz dargit bijotzeko iluna,
eta bere larrosak usainduten nabe.*

*Zerutar egak ditu maitasun zaliak;
lurrera baxen sarri so-dagi ortzira.
Bere leuntasun ziar mosu sutsubenak
espan ganian, otoi bijurtuten dira.*

*Garbitasun usaña txakijan dixuri,
eta lo-dagonian ametszko irrijak
aboko larrosetan dagerkoz urduri.
Aitzatatz alai dardu zelaiko liljak.*

*Neskati ori nor dan ez dazau bijotzak;
jbaña bera dan ona, bera dan liraña!
Begi oneik ez arren, bai-dakus ametsak.
Erean dazaukjot bekoki bikaña.*

*Sarri billauko neban bixtza bidian
ta edertzat aitortu beraren gorputza,
nok baña dasayoke begijen aurrian:
—Maite audana, ete az neure neskutza?*

*Indar ixllor batek batzen dauz goguk;
itzak loitzen ditube maitasun gurenak.
Barre alayak ezik, barruko malkuak,
zale oneintzat dira antzikur gardenak.*

*Maitaliak ixanik alkartuko gara.
Jolas aldijan ezik otyen orduban,
eguzkira espada, gabeko illazkara:
noiz' ak itxi Jainkuan izpizko eskuban.*

*Aldi alaitsu ori jadetsi artian
neure ezkongai bailiran neskatil danari
begiratzen dautsiet dagidan bidian.
Neska polit bakotxan zakust ameslari.*

*Bestiak zeure ederra goratuten dabe,
eurentzat gelgarririk soin orren pitxiak.
Baña zeure zalian indartuten nabe
begi polit samurren leuntasun izpijak.*

*Zerutarrak baitira geure maitasunak,
eta leikide batek estauz lausotuko.
Oraindik estauz loitu gurari lixunak
eta gorputz irrisak estauz banatuko.*

*Ikus eziña zara ezkongai neskutza,
baña, arren, entzun neure maitasunan naya:
Eduira baxen garbi irauki gorputza,
ixan zaite zitoriz gotzon baten gaya.*

*Samurtasuna landu gogo orren altzuan,
urrunarako zara ba usoen antzera.
Ondo zaindu zaidazan oñaze orduban
olderik naiko dauko bijotzak ostera.*

*¡Oi, neure bijotzeko ezkongai gardenal!
beti, arren, aditu maitati ortzira.
¡Zeugan mosuba baxen kutun dot arrenal!
¡Andrak ederren dira zerurantz begira!*

Goiz eder honetan...

Duela 68 urte fusilatu zuten faxistek, Gasteizen, **Lauaxeta**, eskal poesiari **bide berriak** zabaldu zizkion olerkaria, eta abuztuaren 3an **100 urte** beteko dira jaio zenetik.

JUAN LUIS ZABALA

Fedearen indarrez, fusilatu behar zuten goizari alde zurretik eder irizteko kemena izan zuen Lauaxetak, kartzela barruan, heriotza gogor horren zain zegoela, idatzitako *Asken oyua* poeman: «*Goiz eder onetan erail bear nabe...*». Hutsik egin gabe heldu zen poetak iragarritako goiz hura Gasteizko Santa Isabel hilerria, Lauaxeta fusilatu zuten hormara. 25. eguna zuen 1937ko ekainak. 68 urte igaro dira, eta aurki, abuztuaren 3an, 100 urte beteko dira Lauaxeta jaio zenetik. 32 urte baino ez baitzuten erail zutenean.

Begiratzen zaion lekutik begiratzen zaiola, indar sinboliko handiko unea da Lauaxetaren fusilamenduarena. Euskarak, eskal literaturak eta eta eskal kulturak Espainiako II. Errepublikaren garaian abiarazitako zabalkunde eta indartze bidea eten zuten, beste gauza askorekin batera, faxisten altxamenduk, 36ko gerrak eta Francisco Francok gerraren ostean ezarritako diktadurak. Lauaxetaren erailketaren unek galera hori laburbiltzen eta irudikatzen du une tragiko bakoarean, *mise-en-abime* ezin trinkoago baten gisan. Zabalkunde eta indartze bide horretan eragin handiko egile eta eragilea izan zen Lauaxeta, eta urruto nahi zituen bide berriak ezagutzeko aukerarik gabe utzi zuten berak alde zurretik eder iriztiko goizean faxistek Santa Isabel hilerriko iparraldeko hormaren kontra jaurtitako balek.

Laukiz herrian sortu zen Esteban Urkiaga Basaratz, 1905eko abuztuak 3 zituela, baina artean txikia zela Mungiara aldatu zen, familiarekin. Taberna bat jarri zuten han gurasoek, leku bakartian eta, herriko apaizak zioen moduan, lau haizeetara zabalik zegoen etxe batean. Hortik hartu zuen Urkiagak *Lauaxeta* ezizena. Izen horixe duen hotela dago egun etxe hartan.

Abadetza bideratutako ikasketak egin zituen Durangon, eta han Jokin Zaitegi ezagutu zuen. Loiola eta Oñako jesulagunen ikastetxeetan jarraitu zituen ikasketak, baina meza berria emateko gutxi falta zitzaioela komentua utzi zuen, 1928an.

Loiolan juniortza egiten ari zela piztu zitzaion Lauaxetari euskararen eta eskal kulturaren inguruko interesa, Aita Estefania irakaslearen eskutik eta Aita Iberoren *Ami Vasco* liburuaren eraginez, neurri handi batean. Besteak beste, Jokin Zaitegi eta Andima Ibiñagabeitia izan zituen lagun, Loiolan, eskal kulturaren inguruko kezka horretan. Latinezko idazle klasikoaren testuak euskaratu zituzten.

Evaristo Bustintza *Kirikiño*-k eman zizkion argitara lehen lanak Lauaxetari. Gero, Madrilgo *Blanco y Negro* aldizkariak egindako eskaintzari ezezkoa eman eta *Euzkadi* egunkari nazionalistan hasi zen kazetari lanean, Nikolas Ormaetxea *Orixen*-ren laguntzaile hasieran, eta gero, Orixen *Orexara* aldatu zenetik, euskarazko atalaren arduradun. *Azalpenak* izeneko sailean egunero artikulu bat eman zuen argitara, arlo askotako kontuak jorratuz.

Kazetari lanetik landa, era askotako ze-

reginetan murgildu zen Lauaxeta 1929tik 1936ra bitarte, abertzaletasuna bere zereginen ardatz nagusi harturik beti: mitinetan hizlari, antzerki jaien antolatzaile, euskarazko irratsaioen sortzaile, Emakume Abertzale Batzaren sustatzaile...

Poesia arloan egin zuen hala ere Lauaxetak ekarpenik gogoangarriena. Europako poesiaren joera berriei erreparatu zien, eta eskal poesia Europar zabaldutako bide horietan barrena abiarazi nahi izan zuen. «Berritzaile erreza izan genuen Lauaxeta, eskal poesia eta eskal literatura osoa berritzeko ametsarekin jaio zen belaualdi hartako gune eta bihotz», dio Jon Kortazarrek, *Bidegileak* bildumarako idatzi zuen Lauaxetaren biografian (Eusko Jaurilaritza, 1995).

Bide berrietan, olerkari

Erreterian 1930ean, Joxe Ariztimuño *Aitzol*-ek antolatuta, ospatu zen Olerti Egunean lehen saria irabazi zuen, *Maitale kutuna* poemarekin, parte-hartzaileen artean Xabier Lizardi, Orixen, Alejandro Tapiaperurena eta beste izan arren.

Hurrengo urtean *Bide-barriak* argitaratu zuen, lehen poema liburua. «Estetika berri baten agerpena zen», Kortazarren iritziz. Harrera ona izan zuen hasieran, eta Lizardi eta Orixen izan ziren laudatu zutenen artean. Baina gero Lauaxetaren joera poetiko berritzaile haiek euskararentzat kaltegarriak izan zitezkeela esaten hasi ziren batzuk, Aitzol eta Orixen horien artean.

Lau urte geroago kaleratu zuen bigarren poema liburua, *Arrats-beran*, «gure aurreneko balada moderna», Koldo Izagirrek *XX. mendeko poesia kaierak* bildumarako atondu zuen Lauaxetaren antologian dioenez (Susa, 2001). Eskal literaturan nagusi zen joerara egokituta, «herri poesiaren inguruan moldatu zuen liburuaren zatirik garrantzitsuenak», Kortazarren ustez, baina Europari begira ikasitako guztiz baztertu gabe: «Sabinianoa da baina Baudelaire maite du», dio Izagirrek.

36ko gerra hasi orduko, Euzko Gudarostean sartu zen Lauaxeta. Intendentzia eta propaganda arloko zereginetan aritu zen. *Gudari* aldizkarian eta euskarazko lehen egunkarian egin zuen lan, *Eguna*-n, Augustin Zubikarai, Eusebio Erkiaga, Inazio Eizmendi *Basarri* eta beste hainbatekin elkarlanean.

1937ko apirilaren 26an Gernika bonbardatu zuten Alemaniako hegazkinek. Hiru egun geroago, Lauaxeta Gernikara joan zen, frantsesa zekiela eta, Juan Ajuerriagerrak bidalia, Georges Bernard *La Petite Gironde* egunkariko kazetariari laguntzeko. Han faxistek atxilo hartu eta Gasteiz eraman zuten. Lauaxeta beste preso batekin trukatzeko saioak egin ziren arren, azkenean faxistek Lauaxeta fusilatzea erabaki zuten.

Nahiz eta bizi zelarrik ez argitaratu, Lauaxetak kartzela eta heriotzara zigortuta zegoela idatzi zituen poemak ezagunenak dira gaur egun. Heriotzari aurrez aurre eta damurik gabe begiratzen dio poema horietan Lauaxetak, eta baikor ageri da etorkizunari begira ere. «*Erri zintzo-onenak zaindu dagiala / il ginenon atsa, il ginenon ala*», egin zuen aldarri *Asken oyua* poemaren azkeneko bi berroetan.





MANUEL ROBLES ARANGIZ, Lauaxeta, Juan Antonio Kareaga eta Jose Antonio Agirre lehendakaria, Bilboko Euskalduna frontoian egindako mitin batean. 1932an egina da argazkia. ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA. SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA

▣ Bibliografia

POESIA

- 'Bide-barrijak' (1931, Verdes Achirica).
- 'Arrats-beran' (1935, Verdes Achirica; 1991, Elkar; 1995, Orain).
- 'Olerkiak' (1974, Etor; Santi Onaindiaren edizioa; Lauaxetaren poema guztiak).
- 'Olerkiak' (1985, Erein; Jon Kortazarren edizioa; Lauaxetaren poema guztiak).
- 'XX. mendeko poesia kaiera' (2001, Susa; Koldo Izagirrek atondutako antologia).
- 'Lili-negarra' (2004, Paper Hotsak; liburua eta CD-roma, poemarekin eta marrazkienkin).

ARTIKULUAK

- 'Azalpenak. 1931-1935' (1982, Labayru / Bizkaiko Aurrezki Kutxa; Jon Kortazarren edizioa).
- 'Azalpenak eta beste. 1932' (Ostoa-Etor / Euskal Editoreen Elkarte, 1991; Argutzane Mallonaren edizioa).

ANTZERKIA

- 'Antzerti yayan izan naz' (1936, Lopez Mendizabal).
- 'Antzerkia' (1990, Gero-Mensajero / Euskal Editoreen Elkarte).

LAUAXETA INTERNETEN

- Poemak, Klasikoen Gordailuan (www.armiarma.com).
- Lauaxetaren fitxa eta loturak, Literaturaren Zubitegian (helbide berean).

POEMA MUSIKATUAK

- Antton Valverde: 'Azken oya', 'Mendigoxaliarena', 'Itauna', 'Langille eraildu bati', 'Zelayan', 'Amayur gaztelu baltza' eta 'Agur, Euzkadi' poemak, 'Lauaxeta' diskoan (1978); grabatu gabe: 'Neguko gaba' eta 'Maitale kutuna'.
- Imanol: 'Amaiur gaztelu baltza' poema 'Sentimenduen hauspoz' diskoan (1979).
- Itziar: 'Espetxequarena' eta 'Mendigoxaliarena' poemak, 'Itziar' diskoan (1979).
- Hibi Rekondo & Mackfarland: 'Eiztari aundija', 'Iturri negarra', 'Amaiur gaztelu baltza' eta 'Itauna' poemak, 'Amaiur gaztelu baltza' diskoan (1986).
- Eihalar: 'Itauna', 'Euskal kantu txapelketa' disko kolektiboan (1987).
- Jokaldi: 'Itauna', 'Pareak bai' diskoan (1994).
- Jokoa: 'Itauna', 'Abestia' diskoan (1996).
- Zura: 'Langille eraildu bati' eta 'Artzain baten eriotzean' poemak, 'Ilargi Handi Zauri Zarae' diskoan (2005).



LAUAXETA, zenbait lagunekin, Gorbeia mendira egindako ibilaldi batean, 1933an. BIDEGILEAK BILDUMA



GERRA GARAIAN, gudari jantzian ageri da Lauaxeta argazki honetan. Ikurrinari eusten ari zaionaren eskuinean dago. ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA. SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA



'ARRATS-BERAN' poema liburuaren aurkezpena. Lauaxeta, liburuaren egilea, eserita ageri da, argazkiaren erdian. Verdes Achirica argitaletxeak kaleratu zuen liburua, 1935ean. BIDEGILEAK BILDUMA

Esteban Urkiaga

LAUAXETA

(1905-1937)



03 | BIOGRAFIA

Neguko gaba

«Errenteria'tar Gorgoni'ri bijotzez» eskainitako poema, *Bide-barrijan* libuan argitaratua. *Maitale kutuna* ez ezik, poema hau ere musikatua du Antton Valverdek, grabatu gabe oraindik, baina zuzeneko emanaldietarako prest.

*Ara edur-zuriz, zuri, Oiz gorenak,
eta ixotzak jorik geldí lats gurenak.
Ibarretan edur zurijak
dagíjiez ixara barrijak.*

*Odeizko yantzijan dator negu latza:
betiko gorubaz edurren matatza
eunduten diñardu ortzijan.
Ameslari lerrak mendijan...*

*Orri-ikararik ez lertzun ta urkijetan,
Garrak dirdir-begi suteko tresnetan.
Axe otzoi, ua basora,
ipuin zarrak betorz sutera!*

*Pertza albu, dantzán, Muru'ko sorgiña,
egazka Anboto'ko andere ziztriña.
Lua betor umeen begira,
amets-zitala, ua mendira!*

*Gorbeyan murruka axe eta edurra:
Oiyakun samurra, suteko murmurra!
Artega su-motots bixijak,
yantzán mamu gorriz yantzijak.*

*Ipiñi egurrik naiko sukaldian;
sugarrak dirdira dagijan artian
eztago edurren bildurrik.
Ez ixan otzen ardurarrik...*

*Egun obiaren deya da neguba;
itxaro barik ez makurtu buruba.
Gau-begitan dator eguna,
zoritarx altzuan, zoruna.*

*Asaben sutian piztu urrezko garra,
ta goguan, bixitz-arau dan indarra.
Aberrijan txadon donia,
AREITZ-suba dagon sutia.*

*Or, negu latzeko gau-ordu luzeetan
aintzeko itz-sakonak, idatzi zarretan,
daurkiz gogo ameslaríjak.
Asaben eredu garbijak...*

*Poztu, ta bijotzak ez euki urduri;
gaste ule baltz gara, ez zar ule zuri.
Bijarkua itxi etorrijari,
eta yantzán ta abesten ari.*

*Bixitza onetan ametsa da oro,
zadorrik, arren, ez egixu nai idoro.
Larrosak tori arantzetan,
alde ona billau gauzetan...*

*Ara edur zuriz, Oiz gorenak,
eta ixotzak jorik geldí lats gurenak.
Itxorarik ez urrun jaurti,
billau bixitza onen neurri.*

*Piztu su-gorrija soña berotzeko,
ta zartzaro-leunak edurrez beteko
dauskubenerako buruba,
piztu, arren, maitasunsuba!*



¡Itxasora!

Bide-barriak liburuko azken poema da hau, Lauaxetak «Onaindia'tar Alberta'ri, bijotzez» eskainia. Lauaxetak euskara eta euskal literatura haize guztietara zabaltzeko zuen gogo berrizalearen abiazleraz garbitzat jotzen da.

Soñutzik ontzi-puntan, sakoneko lemazain,
itxaso-barne nua zidor ezezaunen gain.
¡Ondartzan oro laga! —arriskubak

[darraigu—,

Lur-barri billatzale ametsa lagun dogu,
Liorreko lokatzok geure malkoz egiñak.
Arnas artzeko, billau,

amaibako urdiñak.

Euren solas utzakaz gixonak lotzen gabez;
Askatasun oldiak ilten dira atsekabez.

¡Aurrera! Iparraldian edur-mendi ixotzabak,
eta ugarte otzetan lamiñen gastelubak.
Eruango zaitubet:

—eunak arro axian—.

Itxaropena bai dot begi onein ganian.
Bide barriak nai dauz abendaren kezkeak:
Lar lurrari egon da.

¡Zabaldu osertzeak!

Ekintza gurenentzat landa au dan zabal,
Izki-mota orontzat burdinori garbala.

¡Geure itxaso gogorra, abendak maite zaitu!
Zeure altzora gatorz, lurra ba txiker yaku.
¡Indar irakasle oi,

kendu odei ta laño!

Balerik estogu nai gogai barriak baño.
Argizkorrija dager, urrezko yantzi barriz.
Ementxe gatorkixuz jakintzaren egarriz.
Ametsik eskenduban legorretan egiten,
uraren barna baño goyak doguz ikusten.
¡Geure itxaso gogorra!

Gogayen arraunlari

Agur egiten dautzu itxaro argijari.
Soñak estitzen dozuz, gogua ariago:
Geuregan legez, zeugan, beti kezka batdago.
Sakon ori nok dazau?

¡Oso zara zadorra!

Ekaitz orreñ orrubu koldarren bildurkorra.
Euzkuak soilik dabilz alzo zabal orretan;
imin dozu oldia euren begi barnetan.

Gudarajak dagixuz, beruzeko bizkarak,
tente diran erruak, burni diran iztarrek.

—Gixonjale leyentzat jaki ziltzagilliak...—

Itxaso aundi orrek, zabal, zeru-atiak.

Erijotza or dabil, or dabil maitasuna.

Erri gogor onentzat, zeugan etorkiñuna.

Odiseu barri gara, lamiñik ezta baño,

Emen sortuba ezta Aprodite linaña.

Geure abenda-antso pioneer gaste gara.

Altzuan beti dozu irri baten ikara.

Baña leoyen legez darresixu galparra.

¡Euzkoen itxasua!

¡Oldia eta indarra!

¡Aurrera, aurrerantzat!

Ontzi-puntan soñutzik.

Axe oron mosubai bijotzak zabaldurik.

Ibilladi au ezta bixitzan amaituko;

Bein ontziratu danik barriz ezta itzuliko.

Miñak lurraen itxi, begoz itun diranak.

Itxaroz kezkatubak nai dabez geure lanak.

Zerubak argi dagoz, begoz pozez begiñak.

Uñen ganian dabilz geroko abestiak...

Barriro esi daigun ludijaren gerrija.

Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.

Itxaruak berua euskotarren ontzija,

Gogua nausi diran argitasun goiraño.

Pioneer gazte gara

LOURDES OTEAGI

EUSKAL LITERATURAN DOKTOREA

Liburuen azalek haien mamia iragarri behar lukete lege onean, baina ez zait hala gertatzen denik iruditzen eta, askotan, egilearen edota edizio-egilearen azken irakurketa edo aldartea agertzen dutela. Hala, estreina irakurri nuen Lauaxetaren olerkien liburuarren azalak haren argazki bat erakusten zuen, txapela jantzita, mokote; gudari jantzian zen, geroago ikusi dudana argazki handiago batean ohartu nintzen. Errezela urdin ilunxko batek lausotzen zion aurpegia. Lauaxeta kopetilan bat zen 1974ko edizioa, baina oromenaren nostalgik bihurtzen zuen hain iluna irudi hura, edo hobeto esanda, oroitzen zutenen etsipenak.

Guda aurreko literaturaren obren edizioen azaletako batzuetan geroago argitalpen batzuetan lerro artean ostentzen zitzaidana atxiki izan dut lipar batean; izan ere, Pizkundeko idazleek bizi izan zuten unearren berezitasunak, edo erabilitako hizkerak edota haien liburuen eite bereziak mundu-ikuskerak bat osatzen dute, nahi badu eta ez badugu, oso atzera geratu zaiguna.

1931n *Bide Barriak* argitaratu zuenean Lizardik *Rumbos nuevos* izenez bi artikulu eskaini zizkiola aurkitu nuen 1987an, haren artikuluak biltzen ari nintzela. Liburuaren iruzkina gaztelaniaz eta prosa dotorean, autoritate apur batez ari denak bezala zuzendu zizkion Lauaxeta idazleari, baina larderiak gabe. Zenbait urte geroago, berriz, Lizardiren omenezko erakusketa antolatzeko haren liburutegian arakatzeko aukera izan nuenean, Lauaxetaren lehen liburu hori tartean zegoela erpreparatu nuen, atsegin. Ireki eta, poema bakoitzaren ondoan, arkatzez idatzirik, argitaraturiko iruzkin kritikoa zuden balioztapen-hitz berberak zeudela ikusi nuen, zaputzez. Hitz doia idorotzeko dohainaren jabe zen Lizardi, zertan uka, baina ez zidan espero bezalako zantzurik eskaintzen.

Poema-liburuaren 1931ko azalari begi eman nion orduan, Lizardiren hitzez gogoratuta, hark itsasoko terminologiaz zipzituduz idatzi baitzuen zeharo *Rumbos nuevos* artikulua. *Bide Barriak*-eko azken poemari (*¡Itxasora!*) atxikiriko irudia eta izenburua ziren azalekoak: ontzi-puntan dauden bi marinel irudikatzen zituen ma-

rra urdinez. Irudiek eta letrek tankera modernoa zuten, garaiko kartelen airekoa. Lehen kolpetik suma zitekeen, hortaz, poema huraxe zela liburuaren mamutzarra, liburuaren ateratzeko unean egileak izandako bulkoa: Odiseo batena, prekurtsore batena, pionero batena. Itsasoratzen den marinel ausartaren aldarria egiten zuen lehen lerrotik bertatik: *Soñutzik ontzi-puntan, sakoneko lemazain, itxaso-barne nua zidor ezezaunen gain.*

Idealaren marinela bilakatu zen Lauaxeta liburu hartan, eta gainerako poema gehienetako giroa hitsa eta sentimental bazez ere, bidaiarako gonbita egiten duen epilogo honek zentzu jakinean norabidetuz: berrizaleen manifestuaz balioztatu zituen eta bera «pioneer» diren poeten izpirituaz sagaratu zen.

Untziratzeko deia egin zuen Lauaxetak «euskararentzat Ternua literarioaren lurrrak idorotzeko», Lizardi erabili zuen irudiaz esateko, baina berak ere ongi ezagutzen zuen dei hori... Beharrik; lehorrari lur-minez itsatsita egon gabe untziratu ziren marinel haien itsasaldia emankor da oraindik euskal literaturarentzat, *ibilladi au ezta bixitzan amaituko, bein ontziratu danik barriz ezta itzuliko.*



Fusilatua da itzala

MIEL A. ELUSTONDO

IDAZLEA

Poeta hartu dut eskutik. Koldo. Nahi gabetanik ere Santa Isabela eraman naute nire pauso baldartuek. Oratu diot eta nirekin doa poeta. Jaregin nahi izan dio nire esku larriari. Paretaraino eraman dut. Behin idatzi zuena hormaren kontra irakurrarazi diot. Lotsak hartu du eta ez du nahi izan. Fermu agindu diot. Ezetz diost. Ezetz, betozko beltzez. Hormaren kontra larrimin, neuk irakurri dut haren liburutik:

Merezi zenuen afusilatzea
Baina ez zintuzten poetaz erahil

—Lauaxeta—

Hemen berdin epaitu ohi baita
Izenez ala ezizenez izana
Hemen ez du astirik ematen poetaz hilteko
Gure oroimenean ez du argi egiten zure

[itzalak

Gure oroimenean gure herriaren
[ibai meharrenean

Badugu izen gehiago eskuan hartzeko

—Lauaxeta—

Harririk sotilenak ere laztantzen ditu

[memoria honen xirripak

Beruzelohartutako ezizenezko izen xumeak

Poeta hartu dut eskutik. Iñigo. Gogoz kontra ere Santa Isabela eraman dute nire pauso elbarriek. Oratu diot eta neure dut poeta. Askatu nahi izan du baina estu daramat preso. Paretaraino eraman dut. Hormaren kontra jarri eta irakurrarazi diot inoiz idatzi zituen letra negarrak. Ezetz dio. Ezetz. Behin eta betiko, diost. Paretaren kontra poetaren malkoa min, bere iturritik irakurri diot:

Tristeza da kartzela bihurtu duten kar-



ITZALAK Gasteizko Santa Isabel hilerriko iparraldeko horman. ZALDI ERO

meldarren komentua. Bizar zarratua utzi du azken egunotan. Ziegatik paredoirakokan, Abaituatarren panteoira eramanen duen hilkutxaren aurretik pasarazi dute. Zain du pelotoia, baina gertu da. Itun Berria, baina batez ere San Juanen ebanjelioa irakurtzen eman ditu azken egunak.

—Orain badakit Jainkoa maitasuna dela —esan dio Lauaxetak azken orduotan lagun izan duen Aita Alfonso Maria Moreno jesuitari. Honek emandako mezan lagundu du oilaritean. Goizeko sei terdiak dira.

Poeta hartu dut eskutik. Kirmen. Santa Isabela eraman dute nire pauso urduriek. Oratu diot eta ekarri dut. Itzuri egin nahi izan dit. Pere Lachaise du amets. Dorotheenstadischer Friedhof. Larache. Paperean idatzi zuena ekarri dut toles zimur gordeta. Puxka poltsikotik atera. Irakur diezadan to! eman diot. Hilerrri ederra, diost poetak.

Hilerrri eder horretako iparraldeko horman fusilatua zuten Esteban Urkiaga Lauaxeta idazlea, gerra garaian. Baina bazter

horretara ez da inor joaten. Horma hartan ez du eser jartzen. Ezerk ez du adierasten hantxe hil zutela gure tradizioko poetarik onenetako bat. Eta aurten ehun urte bete dira hura jai zela. Asko esan nahi du hutsune horrek. Isiltasuna heriotza da.

Santa Isabel hilerria jo dut, Gasteizen. Espainiako Gerra Zibilaren garaian hainbat lagun fusilatuz zituzten bertan, iparraldeko hormaren kontra. Duela hogeit bat urte, eraitzi egin zuten hilerria inguratzen zuen harresia. Haatik, zutik utzi iparraldeko horma. Orain, eguzki goienak gurutzeak jotzen dituenean, itzal egiten du horma hartan. Fusilatua da itzal bakoitza.

Poeta hartu dut eskutik. Koldo.

Sustatu zenuen mehatzaria
Pikotxa etsai odolez bustitzera
Zergatik hil ziren dakiten hildakoek bakarrik
Luzatzen dute itzala lau haizeetara
Dana emon biar yako
matte dan azkatasunari

Kazetari gazte eraila

XABIER ALTZIBAR

EHU-KO IRAKASLEA ETA EUSKALTZAIN URGAZLEA

Lauaxeta EAJren *Euzkadi* egunkari kazetaria izan zen ogibidez, II. Errepublikara garaietan (1931-1936). Gerratean Intendentziako komandante eta propagandaren arduradun ere bai. Eta kazetari lanean harrapatu zuten. Hain zuzen, Gernika bonbakatu ondoren, hiria abertzaleek edo errepublikarrek suntsitu zutelako hotsa zabaldu baitzuten faxistek, munduaren aurrean hori gezurtatzeko, Lauaxetari aginduz zioten Gernika errautsetan erakutsi ziezaien frantses kazetari bati. Harrapatu eta bi hilabetera fusilatuta zuten. 32 urte baizik ez zituen.

«Dana emon biar jako / maite den askatasunari» idatzi zuen mendigoizale gazteak bere odolez berretsi zuen bere konpromisoa. Bazekien zer jokatzeko ari zen. Eta sumatzen zuen bere eta bere herriaren tragedia. Ikusiak zituen abertzaleen hilketak, Burgosko presoendegira joana zen adiskideak ikustera, jazarpen eta zentsurapean jardun behar izan zuen bere kazetari lanean eskubiko gobernuaren agintean (1934-1936). Harentzat benetako abertzalea hori zen: aberriaren alde dena emateko prest zegoena. Hori esaten zuen askotan bere mitinetan.

Lauaxeta ez da gerra garaian eraildako euskal idazle edo kazetari bakarra. Hor daude haren adiskide, lankide edo gogai-de Aitzol, Martin Lekuona, Markiegi eta Aberri elgoibartar berriemaile ere, eta ezin ahaztu Federico Garcia Lorca, Lauaxetaren haren zenbait poema itzulitzaiztuen. Erailak, oro, Errepublikaren kontra altxatuak erailak. Nahiz eta euskal idazle, kazetari, propagandista edo apaiz baizik ez izan, eta bakezale gainera. Edo horrexegatik, hain zuzen.

Lauaxeta intelektual organikoa zen, EAJren zerbitzuan. Jakintzazalea eta kultura. Hain zuzen, kultura nahi zuen izan zedin euskaldunen ezaugarri nagusi.

«Aberriaren hizkuntza», euskara hautatu zuen bere olerki, kazetalan, mitin eta hitzaldietan. Nahiz eta gaztelera hobeto jakin, bere ikasketak erderaz egin eta Bilbon giro abertzale baina erdalezalean bizi izan zelako. Min ematen zion euskaldunak erderaz hitz egiten ikusteak.

Kirikiño idazle eta kazetariaren lanari segida emanez, *Euzkadi* egunkariaren «euskal atal» edo orrialdearen arduradun izan zen. Bere iritzi artikulua idatziaz gainera, orotariko berriak itzultzen zituen, sail berriak antolatzen, idazlanak hautatzen, zuzentzen etab. Batez ere herrietako berriemaileen sarea osatzen lan handia egin zuen: idazleei euskaraz idazteko gogo berotzen, aholkuak ematen, irakurzaletasuna pizten. Utzi zioten bitartean behintzat, 1934ko urrian Bizkaiko



KAZETARITZAN askotariko lanak egin zituen Lauaxetak. SABINO ARANA KULTUR ELKARROA

governadoreak euskara *Euzkadi* egunkarian debekatu baitzuen sei hilabetez.

Haren lanak fruituak eman zituen: hainbat idazle hasi edo jardun ziren haren ardurapean idazten, adib. Erkiaga, Zubikarai, Barrensor, Basarri etab. Kazetaritza idazleentzako mintegi izan baita euskararen kasuan. Eta gero, literaturari leku egin zion euskal atalean. Atal hori, bilbotar egunkariaren *ghetto* moduko bat izan arren, baliotsua da garaiko kronika eta lekuko gisa. Hor ageri dira euskararen inguruko kezka eta eztabaidak, liburu argitaraberriak, euskal herrietako berri xumeak, istorio, olerki eta bertsuak, jakintza eta gizar-tegaiak... zer ez?

Euskal kazetariaren bultzagile sutsu izan zen Lauaxeta. Esaterako, gerratean ateratzen *Eguna*, lehen euskal egunkariarena. Haren iritzi artikuluei dagokienez, duten baliok, erabilitako gai eta ideiek azterlan sakonagorik merezi dute. Bazuen kazetari sena: idazlana ondo egituratzen zekien, ohiko konposizio estiloan, eta ideiak garbi eta indarrez adierazten. Baina euskara kontuetan desbideraturik zebilen. S. Arana hartua zuen maisutza, eta hitz berri asmatu eta ezin ulertuzko gehiegi zerabil-tzan. Albiste arruntenak ematerakoan ere *kale, eliza, kilometro* hitzen ordez *txaide, txadona, aneurkin* erabiltzea, euskara guztiz ulerkaitza bihurtzea zen. Zorionez Gipuzkoa eta Nafarroako egunkari abertzaleak zurrigoak ziren eta ez zioten *Euzkadi*-ren bideari jarraitu. Bestalde, haren euskara ez da munduko gorena; aitzitik, hutsak ditu eta naturaltasuna falta zaio.

Lauaxetarekin zorretan gara. Oraindik ez dugu kazetaria behar bezala ezagutzen. Eskerrak Jon Kortazar eta A. Mallonak bi bilduma behintzat argitaratu dituztela (*Azalpenak. 1931-1935*, Labayru Ikastegia, 1982; *Azalpenak eta beste. 1932, Klasikoak*, 1991). Baina askoz gehiago idatzi zuen Lauaxetak eta oraindik ez dakigu zehatz zer, non, noiz argitaratu zuen ere. Zor dugu beraz haren lanaren ezagutzea eta haren lanari ezagutza.

Lauaxeta, 2005. urtean

AMAIA ITURBIDE

IDAZLEA

Esteban Urkiaga *Lauaxeta* gizon konplexua izan zen, kontradikzioz bete. Izaeraz barnekoia, baina EAJeko mitinetan hizlarria, serioa izanagatik ere, umore keinuak eduki bazezukana (poesian egia batzuekin batera, tonu olgatiar erabiliko du), bere herriko errealtatearekin zeharo engaiatua eta, era berean, idealista, utopia besarkatu zuena. Fededuna eta haruntzago begira egon arren, bizitzak eskaintzen dituen gozotasunei muzin egiten ez dizkien horietarikoa (ardoaren gorazarrean idatzitako bertsuak ditut gogoan), bere intimitatea gordetzen zekiena, baina, era berean, ausera, aitzindaria (poesia arloan Europako modernitate gurera ekartzeko ahalegindu zen), erromantikoa izanagatik ere, pragmatikoa.

Eta hori guztia *Bide-barriak* (1931) eta

Arrats-beran (1935) poema liburuetan islatzen da. Bi liburu hauen gainean iritzia ematean, *Bide-barriak* poeta baten aurreneko urrats dela esango nuke eta modernismoaren eraginez, zenbait unetan gainezkatua, hanpatuegia. *Arrats-beran*-i, aldiz, umotuago irizten diot, neurtuago, non aspaldiko amets klasikoak, hots, formaren eta mamiaren, adierazlearen eta adieraziaren arteko uztarketa ematen den.

Gaur egungo poetoi Lauaxetak arlo batzuk erakusten dizkigu: poesia idazteko hizkuntza maitatu beharra dagoela, tradizioa jaso eta asko irakurtzea komenigarria dela, etikaren eta estetikan arteko loturaren garrantzia eta baita esateko erarena ere, pentsamenduaren beharra (gaur egun ez oso aintzat hartua) eta baita ironiarena ere (gaur egun gehiegi eta halamoduz ustiatua). Lauaxetak poetak bere uste propioak eduki behar dituela erakusten digu, poeta ez dagoela bakarrik, beraz, besteekiko harremanak sustatzeari ezinbesteko deritza eta errealtate-

an txertatuta dagoenez gero, engaiamenduaren beharra azpimarratuko du (garaia hauekarako aholku egokia).

Eta hala, Lauaxeta Orixeren aurrean ikusiko dugu «klasikoa» zer den galderari erantzuten. Poeta kultua zenez gero, irakurketa literario askotarikoak izan zituen: 27ko belaunaldia, erromantikoa alemaniarrrak (batez ere, Novalis, Hölderlin, Heine), frantziar sinbolistak (Baudelaire, Verlaine, Valéry), Keats, Leopardi, Carducci... Beti saiatu zen formak zaintzen eta tonu poetikoa dotorea eta orekatua izango da berea. Harreman atalean gogora dezagun Alea talde literarioaren partaide izan zela eta arte alorrean Nikolas Lekuona ezagutu zuela.

Gerra aurreko Euskal Herriko xake taula zailari nondik helduko aritu zen poemak konfektzionatzen, diseinatzen bizkaitar olerkari fina, XXI. mende hasiera honetan beste batzuk poesia idazten ari garen, ari diren bezalaxe Euskal Herriko xake taula korapilatsu honetan.

Esteban Urkiaga

LAUAXETA

(1905-1937)



05 | IRITZIA

Artzain baten erijotzean

Arrats-beran liburuko poema honetan Federico Garcia Lorca, Charles Baudelaire, Giosue Carducci era Arthur Rimbauden eraginak nabari dira, besteak beste, Jon Kortazarrek Lauaxetaren *Olerkiak* liburuan (Erein, 1985) egindako komentarioan dienez. Zura taldeak —Xabi Strubellek, Martxel Mariskalek, David Martinezek eta Diego Garcia osatua— duela gutxi musikatu eta grabatu du poema hau, *Ilargi Handi Zauri Zara* disko-liburuan (Potxo Argitalzuloa-Metak, 2005). Lauaxetaren eta Federico Garcia Lorcaren beste poema batzuekin batera.

I

Zidarrezko bost sastakai
nok jasan daitez aldian?
Zidarrezko bost sastakai
zeure itzak dantza-aldijan.

Lapur-gaba baltz onetan
zaldi zurixka arin ua,
Artzain: zer dok begijetan?
Erijo 'k ete arua?

Espa urten yaken lerdijai;
a zan espa gau baltzean!
Zidarrezko bost sastakai
nok jasan daitez aldian?

II

Urrun zara, urrun mendija,
borde ori urrunago!
Soil dator zlddi zurija:
zeure jaube illa nun dago?

Arin zuaze ler-barna
pagoen ixal baltzera!
Izarrok, bedartzak barna!
Artzañorak, lats-artera!

Zelan iretargl-izpizai
barre-egjen lur-ganian!
Zidarrezko bost sastakai
nok jasan daitez aldian?

III

Saspi arratsez ardiak
ekin eutsen negarrari.
Saspi goxaldez torlantxak
ekin eutsen ixillari.

Orok negar-egjen eutsen,
orok, neska batek ezik.
Ura joian negar baten,
lorak ziran zimeldurik.

Ilda zan-arren, bai nasia
zauririk ez argajian!
Zidarrezko bost sastakai
sakon eukozan ariman!

«Lauaxetaren poema gehienek merezi dute musikatuak izatea»

Lauaxetaren poesia lau haizeetara zabalteko balio izan zuen Antton Valverdek haren poemak musikatu 1978an osatu eta kaleratu zuen diskoak. Zentsuraren putzu ilunetik orduantxe atera berria zen Lauaxetaren poesia. Bixente Ameztoik egin zuen diskoaren azala, eta Ameztoiren jatorrizko lana etxeko pareta batean zintzilik du oraindik ere Valverdek. Gisa berean, Lauaxetaren poesia oraindik ere taupaka du barruan.

Zentsurak eragotzi zizun, luzaz, Lauaxetaren poesia ezagutzeko.

Lauaxeta misterioa izan zen urte askoan niretzat. Banekien fusilatuta egin zutela, eta aurretik gauza garrantzitsuak egin zituela, baina haren testuak zentsuratuta zuden. 1974an Etor argitaletxeak kaleratu zuen liburu bat, *Bide-barririk, Arrats beran* eta beste olerki batzuk biltzen zituen. Esku artean hartu eta, espero bezala, gustukoa izan nuen. Berehala pentsatu nuen merezi zuela diskoa egitea, jendeak gehiago ezagutzeko. Diskoa egiten ari nintzen bitartean, Lauaxetari buruzko informazio gehiago bildu nuen, bera ezagutu zuen jendarekin egon nintzen, eta pertsonaia ere maitagarriago egin zitzaidan orduan.

Zer harrera izan zuen diskoak?

Nire beste lanek bezala, honek ere zabal-kunde handi-handirik ez zuen izan, jakina. Milaka batzuk saldu ziren, gehiago ez. Baina jende asko inguratu zitzaidan esa-



ZALDE ERRO

ten oso lan garrantzitsua egin nuela, oso ondo egina zegoela, zorionak eta eskerrak ematera... Ez orduan bakarrik, gero ere beti aurkitu dut disko hori aipatzen didan jendea.

Zer ezaugarri nagusik egiten dute erakargarri, zure ustez, Lauaxetaren poesia?

Batetik, Lauaxetaren poesiaren bidez pertsonaia bera nolakoa den ezagutzen dugu: oso gizon delikatu, fina, sentiberatasun handikoa... Bestetik, Lizardik bezala, Lauaxetak ere izugarri lantzen zituen bere poemak. Aditz trinko horiek zalantza bat baino gehiago sortu didate!

Diskoan kantatutakoez gain, Lauaxetaren beste poemarik ez al duzu musikatu gerora?

Diskoaren ondoren, ez nuen Lauaxetaren beste poemarik musikatu. Baina orain, mendeurrena dela eta, kantaldiak egiteko deitu didate handik eta hemendik, eta jaialdi baterako diskoan dagoena baino zerbait gehiago behar dela uste dudanez —lehenago diskoek iraupen mugatua zuten, hiru ordu laurdenekoa asko jota—, beste bi kanta egin ditut: *Neguko gaba* eta *Maitale kutuna*.

Lehenago diskoko estiloan?

Nik uste dut lehenago diskoan sartuta baleude, ondo geratuko zirela han. Ez da oso diferentea estiloa.

Kantaldietan emango dituzu, baina pena izango litzateke bi kantu horiek grabatu gabe geratzea.

Beste disko bat grabatzeko asmoa dut, baina *Neguko gaba* eta *Maitale kutuna* oso diferenteak dira disko horretarako egiten ari naizen kantuen aldean. Bilatu beharko da bide bat, hala ere. *Neguko gaba* oso poema ederra da, eta pena emango lidake kantu hori grabatu gabe uzteak.

Beste aukera bat Lauaxetaren poema gehiago musikatzea da, diskoa osatu arte.

Ez dakit besterik musikatu dudana. Baina uste dut bi kanta horiek grabatzeko aukera sortzen bada, ez ditudala bi horiek bakarrik grabatuko. Beste poema bat ere badut aukeratu, oraindik musika jarri gabe... Lauaxetak ez zuen asko argitaratu, baina banan-banan hartu eta ia poema denek merezi dute musikatu eta grabatzea.

JOSU PENADES IDAZLE ETA IRAKASLEA

«Unamuno legez, Lauaxeta ez zuen Neoeskolastikaren Jainkoak asetzen»

Lauaxetaren pentsamendua aztertuz egin zuen tesiko materiala oinarritzat hartuta, *Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinismena* liburua eman zuen argitara Josu Penadesek (Bermeo, 1962), Deustuko Unibertsitatearen eskutik, 1996an. Lauaxeta pentsamenduaren oinarrian etenik gabeko bilaketa dagoela dio, XIX. eta XX. mendeko joerak uztartzen dituen.

Zerk bultzatuta egin zenuen tesia Lauaxetaz?

Bere poesia irakurri nuen lehen alditik, deigarriak iruditu zitzaizkidan zenbait poemaren izenburuak: *Liparra, Ezilkortasuna, Ziñiste-bakuarena*... Bere garaiko Euskal Herrian Jaungoikoarengana sinismena kolokan jarri zuen, heriotzaren aurreko larridura agertu zuen... Ez dakit Lauaxetak berak, pertsona gisa, kezka horiek planteatu zituen, baina bere ni poetikoak behintzat bai. Horrek bultzatu ninduen prosazko lanak ere irakurtzera. Lehenik, tesina egin nahi nuen; gero ikusi nuen tesia osatzeko gaia zela hura.

Zeren bila abiatu zinen, ikertzen hasitakoan?

Intuzio bat piztu zitzaidan: Lauaxeta haika alorretan konprometituta zegoen, eta guztiak abertzaletasuna zuten galbaha: euskara, literatura, hezkuntza, emakumeen prestakuntza, gizarte arazoak... Nik ikertu nahi nuen zer zegoen horren atzean, zer zen burua eta zer zen buztana. Hau da, bera ohartu gabe bada ere, zer an-



ANDONICANELAHO / ARGAZKI PILES

tropologia zuen Lauaxetak jokabide horren atzean.

Garaiko joera berrietara zabalik zegoen Lauaxeta, eta hori nabarmetzen da behin eta berriz.

Euskal Herrian erroturik, bere garaian Europan izan ziren mugimenduetara zabalik zegoen. *Arrats beran* kaleratu zenean, askok ez zuten gustuko izan, han agertzen ziren gaiak direla eta; *Ziñiste-bakuarena* poema salatu egin zuten, euskaldunen erlijio zaharraren aurka jotzen zuelako.

Baina atzerakoitzat jotzeko moduko iritziak ere agertu zituen behin baino gehiagotan.

Nik uste dut Lauaxetak oin bat XIX. mendean izan zuela eta bestea XX.ean, ez kro-

nologikoki, ideologikoki baizik. Lauaxetaren aurrekoen abertzaletasunaren marko teorikoa germaniar tankerakoa izan zen, esentzietan oinarritua, baina bere belau-naldiko gazteek, Jose Antonio Agirre buru zutela, kristau demokraziarantz jo zuten, XX. mendeko nazionalismo baterantz. Lauaxetaren testuetan mota bateko zein beste nazionalismoaren aldeko adierazpenak daude.

Erlitjioaren inguruko kezka ere etengabea da Lauaxetaren testuetan.

Lauaxetaren zenbait lanetan Unamunorekiko parekotasun handia ikusten da, eta Lauaxetak interesa agertu zuen Unamunoren lanen inguruan, nahiz eta Unamuno abertzale giroan ez oso laudatua izan. *Ezilkortasuna* poeman agerikoa da Unamunoren eragina. Unamunok jaso zuen Jainko logikoa da Lauaxetak hartzen duen berbera, Neoeskolastikak eskainitakoa, baina Jainko horrek ez ditu ez bata eta ez bestea asebetetzen. Biak daude horren kontra, bietan dago heterodoxia bat.

Unamunogaz autuba artikuluan, ordea, gogor kritikatuta zuen Unamuno.

Artikulu hori bere testuinguruan kokatu behar da. Bere parrokiarentzat idatzi zuen hori. Alderdiko estrategiarekin eta horrelako kontuekin lotua dago hori. Baina horrek ez dio eragozten antropologia gaie-tan Unamunori buruzko interesa izatea.

Esteban Urkiaga

LAUAXETA

(1905-1937)



07 | TESTIGANTZAK

Ziñiste-bakuarena

Arrats-beran liburuko poema honegatik jagi-jagi mugimendu abertzaleko kide batek Lauaxeta salatu zuen Alderdiaren epailearen aurrean, euskaldunen fede zahararren kontrako poema zela argudiatuta.

Igande goiz au landa-gain dager

—egal urdiñak dardarka airian,

Zugasti, itxartu barri, bai eder!

Kanpai-otsa zein karden axian.

Gauz orok dauke Jainko betia;

arnas deunak muin dauste niñijan,

Oi latxin zabal orren bakia,

neure otoi au galdtu bedi eugan!

«Ziñismen neure begija zanian

goiz oneik euken argi biguna!

Baña bein barna lañotu yatan

eta inguruban dodan illuna!»

Odei zuri bat —itzal baltziskaz—

bedar eze-gain bai samur dabil!

Muga leunenak aurkhintzak daukaz

ta artotza an dago, ez ots, ez ixil.

Barne ta kanpo Jainko aztarrak

baña ilta daukot fede dirdaya.

Soil matte dodaz latxin ta lerrak;

itxas urdiñak dauken alaya.

Eta goiz garden onen bakian

barriz ots-dagit, au ots bixija!

«Barne ontan nok senti zeinkian

samin ta poza azan begija!»



LAUAXETAREN harrizko irudia,

Mungian, olerkaria bizi izan zen

etxearen aurrean kokatua. BIDEGLEAK BILDUMA

Esteban Urkiaga *lauaxeta*

mendeurrena (1905-2005)

Dana emon behar jako maite dan askatasunari



Desilu
Mirandako
horreek hai burn
ta mrezko espatazu
Berekin dator bai be
Beringo eto horren
teakur txarrak jango dor
herriko zaldun
Goiko aldetik haste
hasien dira suhage
hormakon tretan zenba
eta gezi zorroto jak
Baina torrean
ikurrin bat kate
nork zapaldu et
berrehun gadari
Amairko ga
iatzur

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA